

opusdei.org

Etniker taldeen 50. urteurrena

Euskal Hizkuntza eta Kultura
Katedra jardunean

2020 Abe 10

Etniker ikerketa-taldeak 50 urte bete ditu. Efemeridea ospatzeko, Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrak bere historia biltzen duten sei bideo argitaratu ditu, eta taldeak euskal kultura etnografikoari egindako ekarpen intelektualaren balantzea egiten dute.

Etniker ikerketa-taldeen lana José Miguel de Barandiaranen legatu nagusietako bat da, Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrako lehen zuzendaria. Etniker Nafarroa eratu ondoren, 1969an, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Iparraldeko taldeak eratu ziren, helburu eta metodologia berarekin, baina funtzionamendu autonomoarekin.

1976tik urtero biltzen diren taldeen lankidetzak Etniker Euskalerria Etnografia Elkartearen sortzea ekarri zuen (1991). Haren ikerketek Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren zortzi liburuki eman dituzte, euskal esparruko ohiturei, bizimoduei, erlijiozkotasunari eta herri-sinesmenei buruzko azterketa.

“Traupen luzeko baina gaurkotasun handiko proiektu baten etorkizunari buruz hausnartzeko topaketa bat egitea pentsatu genuen. Eskualdeko

talde ezberdinetako jarduneko kide garrantzitsuenak bildu nahi genituen, baina gaur egungo osasun-egoera dela eta, oroitzapenezko jardunaldia bideo hauen edizioan islatu da”, azaldu du Naiara Ardanaz Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren zuzendariordeak. Esku-hartze horiek eta Etniker proiektuaren balioari eta etorkizuneko aurreikuspenei buruzko beste ekarpen batzuk bilduko dituen lan kolektibo bat argitaratzea ere aurreikusten da.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/etniker-taldeen-50-
urteurrena/](https://opusdei.org/eu-es/article/etniker-taldeen-50-urteurrena/) (2025 Api 16)